

KANALAK



1. Zer egingo dugu gure produktuak bezeroengana helarazteko?

- Komunikazio-kanalak: erabiliko ditugun komunikazio-kanalak propioak eta zuzenak izango dira.
 - Internet web-orri edo blog baten bidez bultzatu gure ideia.
<https://greensanela.wordpress.com/>
 - Email-ak enpresa handiei bidali, autoak ekoizten dituztenei eta enpresa industrialei.
 - Enpresa hauei telefonoz deitu (proiektuaren eskaintza egin interesa duten ala ez jakiteko).
 - Kaletik liburuxkak banatu. Liburuxka hauetan gure enpresari eta gure produktuei buruzko informazioa agertuko da, eta baita gure blog-aren helbidea, telefonoa eta email-a ere.
 - Ondorioa: erabiliko ditugun komunikazio-kanalak propioak eta zuzenak izango dira.
- Banaketa- eta salmenta-kanalak:
 - Gure salgaiak bezeroei helarazteko, produktuak banatzen dituen enpresa baten bidez egingo dugu, eta modu horretan, produktua gizabanakoen etxetaraino edo enpresarien enpresetaraino iritsiko dira.
 - Ondorioa: erabiliko ditugun banaketa- eta salmenta-kanalak elkartutako kanalak izango dira.
- Salmenta-ondorengoa fasea:
 - Bezeroa, produktua eskuratu ondoren, gurekin kontaktuan jarri nahi badu, blog-aren, email-aren edo telefonoaren bitartez egin ahal izango du.